


www.mintzola.eus



nazioarteko
inprobisatzaileen
bira
2018ko urriaren 9tik 14ra
argentina . kuba . euskal herria



komunikazioa@mintzola.eus :: www.mintzola.eus :: (+34) 943 693 870



Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Lanku Kultur Zerbitzuak elkarlanean sortutako ekimena da Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira. Munduko beste kultura eta hizkuntzetako kantu inprobisatuen inguruko ezagutzari jarraipena eman asmoz, urriaren 9tik 14ra Kubako, Argentinako eta Euskal Herriko inprobisatzaileak arituko dira kantuan.

EGITARAUA

Urriaren 9an, asteartean, IRUÑEAN

19:00etan, Zentral aretoan

Inprobisatzaile gonbidatuak: Tomasita Quiala (Kuba) eta Araceli Argüello (Argentina)

Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Julio Soto

Aurkezlea eta gai jartzailea: Iker Iriarte

Antolatzailea: Iruñeko Udala

Urriaren 10ean, asteazkenean, ERANDION

19:00etan, Merkatu Zaharra aretoan

Inprobisatzaile gonbidatuak: Tomasita Quiala (Kuba) eta Araceli Argüello (Argentina)

Bertsolariak: Amets Arzallus eta Jone Uria

Aurkezlea eta gai jartzailea: Iker Iriarte

Antolatzailea: Erandioko Udala

Urriaren 11n, ostegunean, HERNANIN

19:00etan, Biteri Kultur etxean

Inprobisatzaile gonbidatuak: Tomasita Quiala (Kuba) eta Araceli Argüello (Argentina)

Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Julio Soto

Aurkezlea eta gai jartzailea: Iker Iriarte

Antolatzailea: Hernaniko Udala

Urriaren 12an, ostiralean, GASTEIZEN

19:00etan, Beñat Etxepare antzokian

Inprobisatzaile gonbidatuak: Tomasita Quiala (Kuba) eta Araceli Argüello (Argentina)

Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Xabi Igoa

Aurkezlea eta gai jartzailea: Maite Berriozabal

Antolatzailea: Gasteizko Udala



Urriaren 13an, larunbatean, **BAIONAN**

18:00etan, Cité des Arts École Supérieure d'Arts-en

Inprobisatzaile gonbidatuak: Tomasita Quiala (Kuba) eta Araceli Argüello (Argentina)

Bertsolariak: Amets Arzallus eta Jone Uria

Aurkezlea eta gai jartzailea: Maite Berriozabal

Antolatzailea: Euskal Kultur Erakundea eta Haizebegi Festibala

Urriaren 14an, igandean, **DONOSTIAN**

19:00etan, Antzoki Zaharrea

Inprobisatzaile gonbidatuak: Tomasita Quiala (Kuba) eta Araceli Argüello (Argentina)

Bertsolariak: Amets Arzallus, Jone Uria eta Julio Soto

Aurkezlea eta gai jartzailea: Iker Iriarte

Antolatzailea: Donostia Festak eta Donostia Kultura Erakundea

INPROBISATZAILEAK

JUANA TOMASA QUIALA

Kuba, repentista

1961eko abenduaren 29an jaio zen Arroyon de Flores-en, Kuban. Haurra zela, hiriburura joan zen *Abel Santamaria* itsuentzako ikastetxe berezian ikastera eta bertan egin zituen Lehen eta Bigarren Hezkuntzak. Inprobisazioarekin izandako lehen hartu-emanak ustekabeak gertatu zen, poeta baten aldeko kantuan bat-batean eta ezustean parte hartu zuenean. Egun, Kubako punto cubanoaren adierazlerik garrantzitsuenetakoa da. Artista afizionatuen mugimendutik agertu zen eta profesional bihurtu arren, bere jarduna oraindik herriko mugimenduari lotua dago eta plazarik ohikoenak guatekeak, serenatak eta auzo eta landa inguruko festak dira. Horrez gain, ipuinak, abestiak eta neurri handiko poesiak ere idazten ditu.

Punto cubano

·**Hizkuntza:** Espainiera

·**Lurraldea:** Kanariar Uharteak eta Kuba

·**Inprobisatzailea:** Repentista

·**Deskribapena:** Espainieraz egiten den Kubako kantu inprobisatua da, eta Andaluzia eta Kanariar Uharteetako jatorria izanik ere, afrikar musika elementuak barneratuta, berezko generoa da *punto cubano*. Gaur egun, kantu inprobisatu hau oso bizirik dago Kuban, belaunaldi berriei transmititzeko egitasmoak abian dira eta gero eta emakume gehiago ari da kantuan. Inprobisatzaileak bakarka edo binaka (*controversia*) aritzen dira, eta inprobisatzen ari diren heinean, estrofen arteko tartekak musikariek betetzen dituzte. Erabiltzen diren instrumentuak lautea, gitarra espainola, tres kubatarra eta tiplea dira.



ARACELI ARGÜELLO

Argentina, payadorea

1995eko otsailaren 20an jaio zen Pozo del Moll-en, Argentinan. Etxetik jaso zuen ohitura eta tradizio kreoleenganako zaletasuna eta txikitatik zuen bertso eta landa inguruko milongeean interesa. Hori horrela, 12 urterekin gitarrari heldu eta Saul Huenchul Patagoniako payadorearen hitzak hartu zituen eredu eta 2013an, payadore izendatu zuten Marta Suint payadore argentinarrak eta Jose Curbelo payadore uruguaitarrak. Egun, Hizkuntza eta Literatura Lizentziaturako ikaslea da Villa Mariako Unibertsitatean.

Payada/paya

- Hizkuntza:** Espainiera
- Lurraldea:** Argentina, Uruguai, Paraguai, Brasil hegoaldea eta Txile
- Inprobisatzailea:** Payadorea
- Deskribapena:** Espainieraz inprobisatzen da payada (Argentina, Uruguai, Paraguai eta Brasilgo hegoaldean) eta paya (Txilen). Bakarka edo lehian (contrapunto) inprobisatzen dute payadoreek, gitarraren laguntzaz. Inprobisatzaileak decima, sextilla, octavilla edo koplak neurriak erabil ditzake. Gehienek milonga erritmoa izaten dute orokorrean, nahiz eta honako erritmo hauek ere ohikoak izan daitezkeen zenbait kasutan: cielito, cifra, habanera, vidalita, estilo eta vals, besteak beste. Payadoreen arteko topaketa eta jardunaldiak sarritan antolatzen dira, eta gazteak inprobisaziora hurbiltzeko transmisio bideak ere martxan daude. Kasu honetan ere, emakume inprobisatzaileen kopurua ugartzen ari da.

AMETS ARZALLUS

Hendaia, bertsolaria

Han bizi ez bada ere, Hendaia bere jaioterritik ez da gehiegi urruntzen. Ikasketak Seaskako ikastoletan egin ondotik Leioara joan zen kazetaritza ikastera. Nagusiki bertsolaritzan aritzen da egun, baina tarteka kazetaritza edo idazle lanetan ere bai. Jexux Arzallus bertsolari goiztarraren semea izaki, etxean bertso giroa izan du eta txikitatik hasi zen kantuan. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen Amets Arzallusek eta txapelkunorde izan zen 2009an; 2005etik final guztietan aritu da. Lapurdi, Baxenebarre eta Zuberoan egiten den Bertsolari Xapelgoari dagokionez, 2008koa, 2010ekoa eta 2012koa irabazi zituen, eta Nafarroako txapelkun ere izan zen 2000tik 2003ra bitartean jokatu ziren lau txapelketetan.

XABI IGOA

Aramaio, bertsolaria

2004an Aramaioko bertso-eskolara batu zen, Manex Agirre irakasle zela; gerora bera ere izan da bertso-eskolako irakasle, nahiz eta egun, lanbidez, AZK Komunikazio Agentzian dabilen lanean. 2018tik, gainera, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakari taldeko kidea da. Arabako Bertsolari Txapelketako finalista izan zen 2015ean eta 2017an. Kuadrila Arteko Txapelketari dagokionez, 2010ekoa eta 2018koa irabazi zituen Aramaioko taldearekin.



MAIALEN LUJANBIO

Hernani, bertsolaria

Bertsolaria da afizioz eta ofizioz. Letren bueltan bizi da Maialen Lujanbio: bat-bateko bertsogintza landuz nagusiki, letra idatzietan ere bai tarteka, eta hitzetatik abiatutako bestelako sorkuntza saiakeratan murgilduta. Arte ederretan lizentziaduna da. 2018tik Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaritza taldeko kidea da. Bertsotan ikastolako bertso- eskolan hasi zen, eta eskolarteko txapelketen bitartez murgildu zen pixkanaka bertso munduan. 15 urterekin ekin zion plazaz plazako ibiliari, bere belaunaldiko beste zenbait bertsolarirekin bateratsu. 2017ko txapela irabazita, Euskal Herriko egungo bertsolari txapelduna da Lujanbio, 2009an egin moduan, eta txapeldunorde izan zen 2001ean eta 2013an. 1997tik beti sailkatu izan da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako. Euskal Herrikoaren aurretik, 2003an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa ere irabazi zuen.

JULIO SOTO

Gorriti, bertsolaria

Iruñeko bertso- eskolan trebatua, Nafarroako Eskolarteko txapeldun izan zen 2003an, 2004an eta 2005ean. Nekazal ingenieritza eta euskal filologia ikasi ditu. 2006an sartu zen lehen aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean. 2009an txapeldunorde izan zen eta 2010, 2011, 2015 eta 2017 urteetako txapelduna da. 2009, 2013 eta 2017 urteetan jokaturako Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusietan ere parte hartu du.

JONE URIA

Getxo, bertsolaria

Matematikan lizentziaduna, doktoretza gauzatzen ari da Euskal Herriko Unibertsitatean. Sustapen Saileko arduraduna da egun eta Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako partaidea. Guraso euskaldun berriak izanagatik, etxetik datorkio bertsozaletasuna. 9 urterekin San Nikolas ikastolan eskolaz kanpoko bertsolaritza eskolatan izena eman ondoren, 12 urte zituela hasi zen ALBEn Algortako Bertsolari Eskolan, eta ordutik bertan jarraitzen du partaide zein eragile gisa. 2008an hartu zuen parte lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalurrekoetara iritsiz eta gerora finaletan aritu da, 2010, 2012, 2014 eta 2016an. 2009, 2013 eta 2017 urteetako Bertsolari Txapelketa Nagusietan ere aritu da.

Bertsolaritza

- Hizkuntza:** Euskara
- Lurraldea:** Euskal Herria
- Inprobisatzailea:** Bertsolaria
- Deskribapena:** Euskaraz, errima eta neurri patroï batzuen arabera inprobisatuz abestutako artea da. Kantatzen den pieza bertsoa da eta kantatzen duen pertsona, bertsolaria. Euskal Herrian kokatzen da. Euskararen komunitate horretan, bertsolaritza indartsu dago: bertso emanaldiak ugariak dira, bertsolarien ezaugarriak adinez, sexuz, jatorriz eta ikasketez, anitzak; transmisio bideak eta jarduera arloak zabalduz doaz; eta gizarte mailan prestigio handia du.



LAGUNTZAILE, BABESLE ETA ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

Iruñeko Udala, Erandioko Udala, Hernaniko Udala, Gasteizko Udala, Euskal Kultur Erakundea, Haizebegi festibala, Donostia Festak eta Donostia Kultura Erakundea

BABESLEA

Donostia 2016

ANTOLATZAILEAK

Mintzola Ahozko Lantegia eta Lanku Kultur Zerbitzuak

